

KONTRATAZIORAKO BARNE-ARGIBIDEAK

LHKren kontratuen araudia sektore publikoko kontratazioa arautzen duen markoaren baitakoa da. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 3.1. h) artikulua arabera, erakunde hau administrazio publikoko erakunde bat ez den arren, esleipen-gaitasuna du eta kontrataziorako araudia aipatutako legearen 173. artikuluan eta ondorengoetan zehazten da.

Lege horren beraren 42. artikuluan irakur dezakegun modura, erakundearen kontratatzaile-profila internet bitartez zabaldu behar da Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) kontratu-harremanetan gardentasuna eta jendeak haietara sarbidea duela bermatzeko. Kontratatzailearen profilean LHKren kontratazio-jarduera guztiei buruzko edozein datu sar daiteke.

Zehatzago esateko, 175 b) artikuluan erakunde barnean bete beharreko arau batzuk onartu beharra ezartzen da. Bertan, adostutako arauditik at dauden kontratuetarako, kontratazio-prozedurak ezarriko dira. Prozedura horiek kontratatzailearen profilean argitaratuko dira nahi dituen oren eskura.

Hori dela eta, Osoko Bilkurak kontratatzailearen profilean argitaratuko den testua, jarraibide horiek biltzen dituen, bozkatu behar du.

Jarraibide horien helburua Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) kontrataziorako prozedurak arautzea da. Beronek, administrazio publikoa izan ez arren, esleipen-ahalmena baitu Sektore Publikoko Kontratuei (SPKL) buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera.

LHKren kontratazioa arau hauen arabera izango da, arau hauek, SPKLren 175. artikuluko zehaztapenak betetzen baitituzte, hala nola, publizitateari, aldiberekotasunari, gardentasunari, konfidentziasunari, berdintasunari eta ez diskriminatzeari dagozkion printzipioak bermatzea eta kontratuak ekonomikoki onuragarriagoa den eskaintza burutzen duen enpresari esleitzea.

Aplikazio-eremua

Arau hauek LHKren obra, hornikuntza eta zerbitzuen kontratu guztietan bete behar dira. Hala ere, araudi honetatik kanpo geratuko dira:

- Preco-ri zerbitzua ematen dioten profesionalekin hitzartutako kontratuak
- Adostutako araudiaren baitan dauden kontratuak. Kontratuaren prestakuntza eta esleipena SPKLren 121.1 eta 174 artikuluen arabera izango da hurrenez hurren.
- Espresuki SPLKtik at geratzen diren kontratu eta negozioak.

Kontratuaren alderdiak

a) Kontratazio-organoa

Kontratazio Organoa Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkura da. Hala ere, arau hauen onarpenaren ondoren, obren, zerbitzuen eta hornikuntzen kontratazioari dagozkion eskuduntzak jarraian azalduko dugun modura eskuordetuko dira: 100.000 € baino gehiagoko kontratuetan, Kontseiluko presidentek izango du eskuduntza, eta, gainerako kontratuetan, Kontseiluko idazkari nagusiak. Kontratuak 300.000 € gaindituz gero, presidentek Osoko Bilkuraren berariazko baimena beharko du.

b) Kontratatzailea: baldintzak

Kontratatzaileek SPLKren 43. artikuluan eta ondorengo artikuluetan arautzen diren gaitasunari, kontratatzeko debekuei eta kaudimenari buruzko eskakizunak bete beharko dituzte. LHKk horrela nahi izanez gero, enpresariaren sailkapena exiji dezake.

Kontratuaren helburua

Kontratuaren helburuari eta kontratuaren prezioari dagokienez, aplikatzekoak izango dira 30/2007 Legearen 74. eta 75. artikuluetan zehazten diren arauak, hurrenez hurren.

Esleipen-prozedura

Aurrerago azalduko ditugun kontratazio zuzeneko esleipenetan izan ezik, LHKk esleitzen dituen obretarako, hornikuntzarako eta zerbitzuetarako kontratuak jarraian azaltzen den prozedura jarraituz egin beharko dira:

1. Prestakuntza

Kontrataziorako prozedurari dagokion LHKren atalak egindako txosten batekin ekingo zaio. Txosten horretan kontratazioaren beharrak eta gutxi gorabeherako kostua zehaztuko dira, eta administrazioko buruaren sinadura izango du. Sinadura horrek ziurtatzen du erakundeak kontratazioa egiteko nahikoa kreditu baduela.

2. Prozeduraren hasiera

Txosten hori eskuen artean duela, kontratazio-organoak prozedurari hasiera emateko erabakia hartuko du. Horretarako, kontratazio-motaren arabera, baldintza teknikoak jasotzen dituzten pleguak egingo dira, eta hala behar izanez gero, baldintza zehatzak ere ezarriko dira. Dena den, egin beharreko kontratua 50.000 €-tik gorakoa bada (SPLKren 121.1 art.), ezinbestean kontratatzailearen profilean argitaratuko den eta kontratuaren zati izango den plegu bat egingo da. Kontratu horretan ezinbestekoak dira honako datu hauek:

- Kontratuaren ezaugarri orokorrak
- Aldaerak onartzeko erregimena.

- Eskaintzak aurkezteko epea, modalitatea eta tokia, esleipenerako irizpideak
- Hala behar izanez gero beharrezko bermeak
- Kontratua betetzen ez bada ezarriko diren isunak
- SPLKren 104. artikulua araberako subrogazioa beharrezkoa denean, esleipendunak lan-harreman zehatzetan bete behar dituen subrogazio-baldintzei buruzko informazioa.

3. Publizitatea

50.000 €-tik gorako kontratazioetan, lizitazio-iragarkia “kontratatzailearen profilean” argitaratuko da gutxienez 10 egunez. Kontratua presazkoa izanez gero, epe hori motzagoa izan daiteke. Gainerako kasuetan, publizitate-eskakizunetan ezarritakoa kontratatzailearen profilaren bitartez edo eskaintza gutxienez hiru hornitzaileari eginda beteko da. Bi aukera horiek batera ere bete daitezke. Kasu berezietan, kontratatu beharreko lan edo zerbitzuak bereziak direnean, edo zehaztasun teknikoren bat eskatzen dutenean, kontratazio-organoak horrela erabakiz gero, esleipena hornitzaile bakarrarekin zuzenean negoziatuz egin daiteke.

Kontratatzailearen profilean, deialdia, kontrataziorako beharrezko dokumentazioa eta kontratuari dagokion esleipena zintzilikatuko dira.

4. Eskaintzak

Eskaintzak kontratazio-organoak ireki eta baloratuko ditu. Horretarako beharrezko irizten dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu. Horrez gain, enpresa eskatzaileei, aurkeztutako dokumentazioan ikusitako akatsak zuzentzeko edo eskaintzaren atalen bat argitzeko ere eska diezaieke. Eskaintzen sekretua uneoro errespetatuko da, eta eskatzaileek ez dutela informazio pribilegiaturik izango bermatuko da.

5. Kontratuaren esleipena

Kontratazio-organoak eskaintza onuragarriena hautatuko du, eta hautaketa hori esleipendunari jakinaraziko zaio. Horrez gain, hautaketa “kontratatzailearen profilean” ere argitaratu daiteke hala nahi izanez gero. Eskaintzak baloratu, eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatu ahal izateko, kontratuaren helburuarekin zerikusi zuzena duten irizpideak erabiliko ditu kontratazio-organoak, hala nola, kalitatea, prezioa, amaitzeko epea, ingurumen-ezaugarriak, bitartekoak, laguntza teknikoaren kostua, salmenta ondorengo zerbitzua edo kontratazio-organoak zehaztutako antzeko irizpideak. Eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra erabiliz gero, honek preziorik baxuenaren irizpidea izan beharko du nahitaez.

Kontratazio-organoak esleipena eman gabe utz dezake.

6. Itunak egiteko askatasuna

LHKk hitzarmenak, klausulak eta baldintzak ezar ditzake kontratuan. Hala ere, horiek ezin izango dute interes publikoaren, ordenamendu juridikoen eta administrazio onaren printzipioen aurkakoak izan.

7. Kontratuen gutxienerako edukiak

Pleguetan zehazten ez badira, LHKk ezinbestean sartu beharko du kontratuetan SPLKren 26. artikuluari erreferentzia egiten dion aipameneren bat.

Kontratazio-organoak onartutako eta kontratatzailearen profileen argitaratutako plegua kontratuaren zati izango da beti.

8. Kontratuen ezaugarri juridikoak

30/2007 Legearen 20.1 artikulua arabera, LHKk egindako kontratuak kontratu pribatutzat hartuko dira beti.

Kontratuen prestaketari, esleipenari, ondorioei, betetzeari eta amaitzeari dagozkion auziak jurisdikzio zibilean aztertu beharko dira (SPLKren 21. art.).

Kontratazio zuzena

50.000 € baino gutxiagoko obrak eta 18.000 € baino gutxiagoko zerbitzu eta hornidurak (bi kasuetan BEZa kanpo) zuzenean esleiri daitezke enpresariak lan hori aurrera eramateko gaitasuna eta prestaketa profesionala baldin baditu.

Izapideak egiteko nahikoa izango da gastua eta fakturaren igoera onartzea. Obretarako kontratuak izanez gero, aurrekontua ere kontutan hartuko da, baina, horrez gain, horrela nahi izanez gero, proiektu teknikoa ere eskatu ahal izango du kontratazio-organoak.

Lan Harremanetarako Kontseiluak EAEko administrazio orokorrak ezarritako kontratazio-sistemeekin bat egin dezake.

Jarraibideen aldaketa

Jarraibide hauek edozein unetan alda daitezke, bertan adierazten diren printzipioak hobeto betetzeko beharrezkoak diren aldaketa teknikoak edo arau-aldaketak ezarriz. Aldaketa horiek onartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Osoko Bilkurak bere onarpena ematea eta ahal bezain azkarren aldaketa horiek kontratatzailearen profileen argitara ematea.